



# DANTZARI EKITEKO PRESTAKETAK

Hilaren 14an dantza-soka egingo dute Anoetan, egun guztian zehar; ehun lagun inguruk hartuko dute parte 6

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Asteartea**  
**2009-02-03**

VII. URTEA 1.619. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



Dantzariak saio ederra eskaini zuten herenegun goizean; ondoren herri kirolak ere izan ziren. IDOIA LAHIDALGA

## UEMAko ordezkari izateko hautatu dute Larreta

**AMEZKETA** Azken plenoan Palestinaren aldeko mozioa onartu zuten aho batez 5

## «Negoziazioen alde» mobilizatu dira lurreamendin

**TOLOSA** «Lan hitzarmena negoziatu nahi ez izateagatik» egin dute protesta langileek 3



lurreamendiko langileek elkarretaratzea egin zuten. I. TERRADILLOS

## GAUR, ZAINDARIAREN OMENEZ EGUN HANDIA SAN BLAS AUZOAN

**TOLOSA** Mezarekin, toka txapelketarekin eta trikiti doinuekin emango diote bukaera gaur jaiei; asteburuan ere jende ugari hartu du parte 4



Jantzi dotore, jantzi hitza.



Salmenta puntuak: Tolosako OSKI arropa dendan  
Leitzako TORREA tabernan eta HITZAren Tolosako eta Leitzako bulegoetan

zirak • elastikoak • jertseak • fularrak • buffak...

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO **hitza** info

**Kultura** » Hilabete honetako kultur ekitaldi nagusia Inauteriak izango dira; hauek 19an hasiko dira, eta 24an amaitu.

**ERREDAKZIOA**

Hilabete hau, kultur ekitaldiei dagokionez, tolosar gehienentzat urteko garrantzitsuenak izango da ziurrenik. Izan ere, hilaren 19an hasiko dira Tolosako Inauteriak. Urtero bezala, jaiak, musika, mozorroak, eta umorea zabalduko dira hiriko txoko eta izkin guztietara. Tolosa, eta aldi berean, Tolosaldea gelditu egiten da festa hauetan, denak horri begira jarri.

Baina Inauteriak ez ezik, beste hainbat ekitaldi eta saio izango dira datozten egunetan. Apirilaren 2an ailegatuko da Korrika eskualdera, eta honekin lotuta, Korrika kulturalaren baitan, eta motorrak berotzen hasteko, *Erregea eta Bufioia* izeneko emanaldia izango da larunbat honetan. Bertsoa eta antzerkia uzartzen ditu ekitaldiak. Bertan parte hartzen dute, errege lanetan, Andoni Egañak; Bufio gisa, Ander Lipusek eta gaiak jarzzen, Unai Elizasu. Sarrerak salgai daude jada, eta Leidorren bertan eskura daitezke, osteguna bitartean. Edo lehiatilan, ikuskizuna hasi baino lehen.

Zine emanaldiak ere ugari izango dira. Orain ere duela gutxi estreinatutako filmak eskainiko dituzte Leidorren. Bestalde, ohikoa den bezala bonoak erosi ahal izango dira, prezio oso merkean, saio ugaritara joan ahal izateko.

**Aranburu jauregia**

■ **Juan Jose Agirrearen erakusketak.** Lizardi Elkarteak *Tolosa bihotz begietan* izeneko margo erakusketak prestatu du. Hau otsailaren 14ra arte egongo da ikusgai.

**Kultur Etxea**

- **Eskolarteko xake txapelketa.** Hilaren 8an eta 15ean jokatuko dira saioak, 10:00etatik aurrera.
- **Danborradarako entseguak.** Inauterietako danborradarako entseguak egingo dituzte hilaren 9tik 12ra bitartean.
- **Odol-ematea.** Hilaren 16an, odol-emateen hileroko odol ateratzea izango da.
- **Tolosari buruzko historia apunteak.** Aulas Kutzak antolatuta,

# Otsaila Inauterien hilabetea izango da Tolosan nahiz eskualde guztian



Hamasei egun besterik ez dira falta Inauterietako lehendabiziko suziria botatzeko, eta jaiari hasiera emateko. NEREA URBIZU

hainbat hitzaldi izango dira bertan. 18:00etatik 19:00etara izango dira.

**Leidor aretoa**

- **'Erregea eta bufoia'.** Korrika Kulturalaren baitan antolatutako ekintzen artean, bertsoa eta antzerkia uzartzen dituen emanaldi hau ikusteko aukera izango da hilaren 7an, 20:00etan.
- **Kalderoetako kontzertua.** Hilaren 13an, 19:30ean, Udala Musika Eskolako ikasleek eskainiko dute emanaldia.
- **Inauterietako Haur Jaialdia.** Urtero bezala, Aiz Orratz elkarteak antolatuta jaialdia izango da hilaren 14an, 16:30etik aurrera.
- **Ostiral Meheko Jaialdia.** Inauterien baitan, Arpegi taldeak antolatuta ekitaldi berezia eta umoretsua izango da hilaren 20an, 22:45etik aurrera.
- **'Animaliak'.** Haurrentzako dantza ikuskizunaz gozatzeko aukera izango da hilaren 28an, 17:00etatik aurrera.
- **Besteak**
  - **San Blas jaiak.** San Blas auzoko jaiak gaur amaituko dira.
  - **Muralaren margoketa.** GKO Galaria antolatuta, XTREM artista



Urteko lehendabiziko Azoka Berezia ere hilabete honetan egingo da, XIV. Zuhaitz Eguna hain zuzen ere. N. URBIZU

goierritarrak murala egingo du zuzenean, hilaren 6an, Zerkausion.

■ **XIV. Zuhaitz Eguna.** Zuhaitzen erakusketak eta salmenta egingo da Trianguloan, hilaren 7an.

■ **Iurreamendiko kontzertua.** Tolosako Musika Eskolako eskainiko du hilaren 8an.

■ **Inauteri kontzertua.** Tolosako Musika Banda eta Udala Txistulari Bandaren kontzertua izango da Berdura Plazan, hilaren 15ean.

■ **Inauteriak.** Hilaren 19a eta 24a bitartean ospatuko dira Inauteriak.

■ **Tolosa kantari.** Hilaren azken larunbatean egingo da Agirre dokto-rearen plazan, 12:00etan.

■ **Oinarrizko Alpinismo Ikastaroa eta orientaziokoak.** Hilabete guztian zehar, Oargi mendi elkarteak antolatuta izango da ikastaroa.

**Zinema**

■ **Otsailak 5, etzi.** Zine-forumean, *Leonera*-ren jatorrizko bertsoa ikusgai izango da 19:15etan, eta 21:45ean.

■ **Otsailak 6, ostirala.** 22:30ean *My Blueberry Nights* filma eskainiko dute.

■ **Otsailak 8, igandea.** 17:00etan, *Perez sagutxo* 2 filma izango da ikusgai. 19:30ean berriz, *Una familia con clase*, eta 22:00etan berriz, *My Blueberry Nights*.

■ **Otsailak 9, astelehena.** Ikuslearen egunean, 20:30ean, *My Blueberry Nights* filma ikusteko azken aukera izango da.

■ **Otsailak 12, osteguna.** Zine-forumean, *La comedia de la vida* filmaren jatorrizko bertsoa ikusgai izango da. 19:15ean eta 21:45ean izango dira saioak.

■ **Otsailak 13, ostirala.** 22:30ean *7 almas* filma eskainiko dute.

■ **Otsailak 15, igandea.** 17:00etan, *La valiente Despereaux* filma ikusgai izango da. 19:30ean eta 22:00etan berriz, *7 almas*.

■ **Otsailak 26, osteguna.** Zine-forumean, *Las horas del verano*-ren jatorrizko bertsoa ikusgai izango da 19:15etan, eta 21:45ean.

■ **Otsailak 27, ostirala.** *La clase* filma ikusgai izango da 22:30ean.

■ **Otsailak 28, larunbata.** 19:30ean, *Valkiria* lana ikusgai izango da. 22:30ean berriz, *La clase* eskainiko dute.

■ **Martxoak 1, igandea.** 17:00etan, *El reino de los chiflados* filma ikusgai izango da. 19:30ean eta 22:00etan berriz, *Valkiria*.

■ **Martxoak 2, astelehena.** Ikuslearen egunean, 20:30ean, *La clase* filma ikusteko azken aukera izango da.

■ **Martxoak 5, osteguna.** Zine-forumean, *Estrellas de la linea* filmaren jatorrizko bertsoa ikusgai izango da. 19:15ean eta 21:45ean izango dira saioak.

■ **Martxoak 6, ostirala.** *Lo mejor de mi* filma ikusgai izango da 22:30ean.

■ **Martxoak 7, larunbata.** 17:00etan, *Txorburuak* euskarazko filma izango da ikusgai. 19:30ean eta 22:00etan berriz, *Whale Rider*.

■ **Martxoak 8, igandea.** 17:00etan, *Txorburuak* filma izango da ikusgai. 19:30ean berriz, *Lo mejor de mi*, eta 22:00etan, *Estrellas de la linea*.

■ **Martxoak 9, astelehena.** Ikuslearen egunean, 20:30ean, *Lo mejor de mi* filma ikusteko azken aukera izango da.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## 7-1 galdu du Laskorainek Sestaoko Ancla Dosampor taldearen aurka

**Tolosa** » Atearen aurrean zailtasunak izan zituzten; hurrengo partida, Euskaldun taldearen aurka.

### ERREDAKZIOA

Irteera zail eta gogor bati egin behar izan zion aurre Laskorain areto futbol taldeak larunbatean Sestaora eginiko bisitan. Izan ere Nazional B mailako bigarren sailkatua den Ancla Dosampor taldeazuen aurkari, jokalarri veterano eta adituaz jositako taldea. Tolosarrak ezin izan zuten talde gogor honekin, eta 7-1eko emaitzarekin itzuli beharra izan zuten etxera.

Ez zuten neurketa guztiz txarra jokatu Alonsoren mutilek, defentsa sendo batean oinarrituriko lehen zati txukun bat egin eta gero itxaropenerako tarte garbi bat azaldu zutelarik. 1-0 markagailuan atzetik ipini arren, Barriolak 1-1eko merezitako berdinketa ezarri zuen. Ordurako horitxoek zutoinkada bat eta hainbat hutssegite egin zituzten atezain bizkaitarren aurrean. Horrela amaitu zen lehen zatia.

### Ate aurrean zailtasunak

Tolosarrak, beste behin ere, ate aurrean gaitasun eza erakutsi zuten, hainbat partidetan errepikatzen baita zailtasunak dituztela golak sartzeko orduan; eta, horretaz gain, berriro ere nabaritu zen, une garrantzitsuetan taldeak erabat galtzen duela sena.

Bigarren zatia hasi eta seguitan hasi ziren abantaila hartzen sestotarrak. Horrela, 3-1 aurerratu ziren bigarren minuturako. Gainera, arriskatzeko minutuetan gol guztiak etxekoen aldera erori ziren 7-1-eko azken emaitza zelarik norgehiagoka.

Laskorainekoek dioten moduan, «kasualitateak eta zorte txarrak eragin gutxi izan ohi du futbolaren munduan, eta aurtengo denboraldian Laskorain kili-kolo aritu den partidaren gehiengoa galduta bukatu izanaren arrazoia, zorte txarra eta kasualitatearekin zeri-kusirik ez duela baieztatu daiteke erratzeko inolako beldurrik gabe».

Laskorainek hilabete batzuk lesionatuta egon den Lander berreskuratu zuten azken partidarako, eta Zabala ere laster izango da jokatzeke prest. Larunbateko partidari, Javi delegatua, Alonso entrenatzailea, Endika, Amatriain, Barriola, Telletxea, Gil, Ekhi, Telleria, Lander, Joniko eta Domentxe jokalarriak izan ziren. Hurrengo partida Andoaingo Euskaldunaren aurkako izango dute.

Bestalde, gazteek 6-6 berdindu zuten Pasaian, horrela, galdugabe ko segidari jarraipena emanez.

# Lehen postuan da Tolosa CF Aloña-Mendi garaitu ostean

**Tolosa** » 1-0 irabazi zuten larunbatean etxean jokaturiko partida; hurrengo Berioen aurka jokatuko dute.

### ERREDAKZIOA

Larunbatean jokatu zuen preferente mailako Tolosa futbol taldeak partida Aloña-Mendi taldearen aurka, eta garaipena eskuratu zuten tolosarrak. Modu horretan, lehenengo postuan daude sailkapenean, 39 punturekin. Euren atzetik, hain zuten ere, larunbateko aurkari zuzena, Aloña-Mendi dago bi puntu gutxiagorekin, eta hirugarren postuan, Aretxabaleta

taldea dago, 37 punturekin, baita ere.

Berazubin larunbatean tolosarrak jokatu zuten partida garrantzitsua zen, lehen postua baitzegoen jokoan Tolosa eta Aloña-Mendiren artean. Azkenean, tolosarrak lortu zituzten hiru puntuak, partida euren alde 1-0 amaitu baitzen.

Blanco izan zen partidako gol bakarra sartu zuena, bigarren zatian bederatzigarren minutuan. Tolosa mailaz igo nahi duela ari da erakusten astero, joko ona ari baita egiten partidaz partida. Horretarako bideaz delabaterre erraza ere badakite tolosarrak.

Hurrengo partida Berioen aurka jokatuko du etxetik kanpo Tolosa CFk.

### » SAILKAPENA

1. Tolosa	39
2. Aloña-Mendi	37
3. Aretxabaleta	37
4. Hondarribia	36
5. Trintxerpe	34
6. Hernani	33
7. R. Union B	32
8. Pasaia	32
9. Berio	29
10. Idiazabal	26
11. Aurra O.	24
12. Arrasate	22
13. Zumaiako	17
14. Euskalduna	17
15. Vasconia	14
16. Astigarragako	14
17. Amaikak Bat	13
18. Anaitasuna	12

## «Animoz indartsuago gaude»

**JOSE MANUEL LULUAGA** » Tolosa CFren entrenatzailea

**Futbola** » Azken bi partidak irabazita konfidantza handiagoa duela orain taldeak dio entrenatzaileak.

### ERREDAKZIOA

Berriro ere lehenengo postuan da Tolosa CF azken partida, Aloña-Mendiren aurkako irabazi ostean. Garaipen garrantzitsua izan da tolosarentzat, aurkaria ere mailaz igotzeko lehian ari baita. Jose Manuel Luluaga entrenatzaileak ani-

moz indartsuago aurkitzen direla une honetan azaldu du.

**Zer moduz ikusten duzu taldea une honetan?**

Animo aldetik-eta oso ondo ikusten dut. Bi partidajarraian irabazi ditugu eta hori nabaritzen da. Izan ere, izan genuen sasoi bat hainbat partida galdu genituen, eta hor ahulduz joaten zara. Orain, ordea, azken partidak irabazita, konturatzin gara gauza gehiago egiteko gai garela, indartsuago sentitzen zara, konfidantza gehiagorekin.

**Konfidantza eta indar gehiagorekin. Mailaz igotzeko adina bai?**

Guk ez dugu igoeran pentsatu nahi, nahikoa izaten delako horretaz pentsatzen haseta gauzak okertzen joateko. Nahiago dugu partidaz partida joan.

**Hurrengo aurkaria Berio da. Nola ikusten duzu euren aurkako?**

Beti bezala partida irabazteko helburuarekin joango gara, hala ere, zaila izango da, talde ona baita.

**Zein talde egongo zarete mailaz igotzeko lehian?**

Zaila da esatea, une honetan hainbat talde baikaude nahiko parekatu. Gainera, asko geratzen da oraindik denboraldia amaitzeko.



## Mobilizazioak lurreamendi egoitzan

**TOLOSA** » Atzo arratsaldean elkarretaratzera egin zuten lurreamendi adinduen egoitzako langileek. Izan ere, beraien adierazi zuten bezala, «indarrean daukagun lan hitzarmena negoziatu nahi ez izanagatik hartu dugu erabaki hau egoitzako azpikontratatu

gauden langileok». Hala, atzo egin zuten bezala, astelehenero berdin egiten jarraituko dutela esan zuten. ELA eta LAB sindikatuek egin dute mobilizaziorako deialdia, eta langileen batzarrean onartu zuten. Larunbat honetan Triangulon egingo dute. IT.

## Laburrak

### Korrika batzordearen bilerak aste honetan

**EUSKARA** » Tolosako Korrika batzordearen bilera izango da ostegun honetan, hilak 5, 19:30ean. Li-zardi elkarrean egingo dute, eta bertara gonbidatuak daude korrikaren antolaketan parte hartu nahi duten guztiak. Bestalde, Ibarren gaur egingo dute, 19:00etan Kultur Etxean, Korrika batzordearen bilera.

### Gaur, Orixen DBHren aurkezpena egingo dute

**TOLOSA** » Orixen institutuan bilera egingo dute gaur, 18:30ean. Gurasoei zuzendua izango da, eta DBHren aurkezpena egingo dute bertan.

### Barreterapia ikastaroa antolatu dute Donostian

**TOLOSA** » Barrearen eskolak barreterapia formakuntza ikastaroa antolatu du Donostian. Begirale izateko edo garapen pertsonalari bideraturiko ikastaroa da, eta 6 asteburutan emango dute, martxotik uztaiera. Informazio gehiago, risainteligente@hotmail.com-en ala 943 1186 69 zenbakian.

## T Telefonoak

### Larrialdia. ((112))

#### OSASUNA.

**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212

**Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 943 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 943 692423

**Baliarrain.** Medikua: 943 889003

**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

**Bidegoian.** Medikua: 943 681134

**Ibarraldea.** Osasun etxea: 943 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329

**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Orendain.** Medikua: 943 655595

**Orexa.** Medikua: 943 682228

#### Tolosa.

**Anbulatorioa, larrialdia:** 943 461111

**San Esteban:** 943 006800

**Gernikako arbol:** 943 006900

**Amarozko dispen:** 943 672637

**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdia)

**DYA:** 943 672536

**Gurutze Gorria:** 943 674888

**Villabona.** Anbulat.: 943 006970

**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 943 693930

#### GARRAIOAK.

**Renfe:** 902 24 02 02

**Donostiako autobusa:** 943 361740

**Tolosalde bus:** 943 650621

**Leitzaran autob.**: 948 221015

**Taxia:** 943 670420

**Taxia (Leitza):** 608 873016

#### BESTERIK.

**Ertzaintza:** 943 538820

**Tolosa-Udaltzaingoa:** 943 675858

**Tolargi:** 943 650016

**lurreamendi egoitza:** 943 670325

**Tolosa gasa:** 943 675320

**Alkoholiko anonimoak:** 943 248474



Unai Otaño eta Angel Arrospide aizkolariak aritu ziren lehian, herenegun eguerdian. IDOIA LAHIDALGA



Amarozko dantza taldea ere San Blasen izan zen. I.L.



Goiz eta arratsalde aritu ziren bertsotan. IDOIA LAHIDALGA

# Euskal giroko ekitaldiak Sanblasetan

**Tolosa** » Bertsolariak, dantzariak eta aizkolariak izan ziren herenegun San Blasko jaietan; gaur emango diete amaiera auzoko jaiei.

## ERREDAKZIOA

Tolosako San Blas auzoan egun handia da gaur, bertako patrioiaren omenez, festak ari baitira ospatzen. Opilengatik eta ezarriko minetik babesten duten kordelengatik da ezaguna santu hau. Kontatzen denez, on asko egindako gizona omen zen eta mutil koxkor bat sendatu zuen ezarrarian trabatutako arrain hezur bat atereaz. Geroztik, ezarri minaren zaindari bihurtu da San Blas martiria.

## Urtarrilean hasitako jaiek gaur amaituko dira

Jai egun nagusia gaur bada ere, ekitaldi ugari izan ziren herenegun Tolosako auzoan. Goizetik, konponezinak txarangakoak hasi ziren kalean instrumentuak astintzen eta ohetik jeikitzeke garaia zela iragarritz. Ondoren igandero bezala Meza Nagusia ospatu zen. Baina herenegun goa berezia izan zen, hildako auzokoak eta bazkideak izan baitzituzten gogoan.

Eguerdian, dantza emanaldi berezi eta aldi berean xelebrea izan zen. Jende ugari hurbildu zen Amarozko dantzarien saioa ikustera. Jarraian, Unai Otaño eta Angel Arrospide aizkolariak aritu zi-

## » EGITARRAUA

### Otsailak 3, gaur San Blas Eguna

■ **11:00.** Meza Nagusia ospatuko da eta hor, ohiturari jarraituz, bertako produktuen bedeinkapena egingo dute.

■ **12:30.** Toka txapelketa jokatu da auzokoentzat eta elkarteko ki-deentzat.

■ **18:00-21:30.** Elustondo anai-arreba trikiti saioa izango da, arratsaldea alaitzeko.

ren nor baino nor. Enborra etzanda nahiz zutik jarrita ebaki zuten eskualdeko aizkolariak. Hauen ostean, goizeko ekitaldiei amaiera emateko Angel Mari Peñagarikano eta Jesus Mari Irazu bertsolariak izan ziren taula gainean. Eguerdiko atsedendia eta gero, bazkalostean berriro ere aritu ziren bi hauek.

Egunari amaiera trikiti doinuekin eman zioten. Elustondo anai-arrebak aritu ziren hauspoa eta panderoa astintzen. Atzokoan berri, arratsaldean izan zen eguneko ekitaldi bakarra, Disko-festa. Honenbestez gaur emango diete amaiera auzoko jaiei.

## Laburrak

### Korrika batzordeak osatzeko bilera, gaur

**IBARRA** » Korrikaren inguruko informazioa zabaltzeko asmoz, eta Korrika batzordeak osatzeko, bilera izango da gaur, 19:00etan, Ibarra-ko Kultur Etxean.

### Juan Jose Agirrerren margolanak ikusgai dira

**TOLOSA** » Juan Jose Agirrerren margolanak ikusgai daude Aranburu Jauregian, hilaren 14ra bitartean. Goiz eta arratsaldez dago zabalik erakusketa.

### Meana eta Garijoren hitzaldia gaur Kultur Etxean

**IBARRA** » Gaur Montse Meana eta Lourdes Garijo Gasteizko haur eskolako hezitzaileek 0-3 hauren heziketa estilo berri bat hitzaldia emango dute Kultur Etxean 18:00etan.

## Mendekotasunera ez iristeko prestatuz

**Gizartea** » Udalak ikastaro bat antolatu du, Mendekotasunaren Prebentziorako Egitaraua garatu ahal izateko.

## ERREDAKZIOA

Tolosako Udaleko Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuak, hemendik gutxira, Mendekotasunaren Prebentziorako Egitaraua garatzeko asmoa du. Egitarau hau eguneroko bizimoduan zailtasun txikiak dituzten 75 urtetik gorako pertsoneri dago zuzendua. Izan ere, hauek, mendekotasunik pairatzen ez badute ere, eta autonomo baldin badira ere, aurrera begira, egoera aldatuko

balitz, nola erantzun jakiteko prestatuko dituzte.

Egitasmo honen helburu nagusia da mendekotasunak eragiten dituen eragozpenak gainditzea, eguneroko bizimodua hobetuz eta aisialdia era aktibo batean betetzaz. Izan ere, askorentzat, egoera horretara iristean, ez dute jakiten nola egin aurrera, eta honek prestatuta horretan lagunduko du.

Ekimen hau doakoa izango da eta izena emateko epea hilaren 6an bukatzen da. Interesatek informazio gehiago jaso nahibadute, Gizarte Zerbitzuetako bulegora joan daitezke, ordutegi honen barruan: asteleheneetik ostiralera, ostegunetan izan ezin, 10:00etatik 13:00etara, edo telefonoz, 943 69 74 60ra deituta.

## Laburrak

### Zazpi-Ilturri, asteburuko jaun eta jabe garaipenekin

**AMEZKETA** ● Asteburu honetan zehar Amezketa Zazpi-Ilturri pilota eskolakoak Euskadiko Ligan aritu dira, Amezketa Larrunari pilotalekuan. 22 urte azpikoetan eta ohorezko mailan aritu dira eta bi partidak irabazi dituzte. 22 urte azpikoetan binakakoan Berrizko Oizpekoen aurka (Alberdi-Perosanz) Ropon-Leunda bikotea aritu zen eta 22-5 irabazi zuten. Ohorezko mailan, berriz, Zugarraldeko Arrastoa-Landiribar bikoteak ere galdu zuten, 10 tanto eginez Elurbe-Arzelusen kontra. Beraz, jardunaldi borobila izan dute Amezketaok, bi norgehiagokak irabazita.

### Gaur hauteskunde buruzko herri batzarra

**AMEZKETA** ● Amezketa ezker abertzaleak deituta herri batzarra izango da gaur udaletxean. 20:30ean hasiko da eta gai nagusia marxoaren leku hauteskunde buruzkoa izango da. Deialdia irekia da.

### Intxurren garaipenarekin seigarren postuan dira

**ALEGIA** ● Intxurreko futbol jokalariek garaipena eskuratu dute asteburu honetan, 1-2 Segura-Goierri irabazita. Lau partida jokatu ditu eta seigarren lekuan da sei punturakin. Honi gaineratu behar zaio, bere azpian, bost partida jokatu dituzten bi talde daudela; beraz, horrek abantaila emango dio. Ordizia da iguera faseko lehen taldea 10 punturakin. Datorren jardunaldian 8. lekuan dagoen Kostikas MBren kontra jokatu du etxean Intxurrek.

### Haur parkea egiteko diru laguntza jasoko du herriak

**IKAZTEGIETA** ● Ikaztegieta Udalak haur parke bat egiteko diru laguntza jasoko du. Hala eman zuen argitara atzo Espainiako Gobernuak. Proiektu honetarako 80.530 euro izango du herriak, hau da, 178 euro biztanle bakoitzeko.

### Udalak Languarreko izeia eman egingo du

**ALEGIA** ● Languarre parkean douglas izei handi bat erori zen joan den astean. Zuhaitzak han jarraitzen du eta Alegiako Udalak honekin zerbitu egitea pentsatu du, herriarren bati eskaintzea, hain zuzen. Zuhaitz horrekiko interesa duena Joxe Manuel Garaialde zinegotziarekin harremanetan jarri beharko da datozen egunetan. Udalak baldintza bat jarri du: izeia-gatik interesa duenak zuhaitza eramateaz arduratu beharko du eta ondoren leku hori txukun utzi. Izeia 35 metro inguruko altuera du, eta egurra ateratzeko makina bat kilo ditu.

# Lurdes Larreta zinegotzia hautatu dute UEMAKo ordezkaria izateko

**Amezketak** ● Palestinaren aldeko mozioa aho batez onartu dute; Guillermo Olmo eskulturgileak proiektu bat aurkeztu du.

## ERREDAKZIOA

Amezketak badu UEMAKo ordezkaria: Lurdes Larreta zinegotzia. Aurreko bilkuran UEMAn sartzea eta bertako estatutuak onartzea adostu zuten. Denen aldeko botoekin onartu zuten Larreta ordezkari. Hau izan zen ohiko bilkurako gai erabakiorretako bat. Honela eskualdean 16 herri izango dira UEMAKo kide, izan ere, Aduna, Elduain Irura, Anoeta, Belauntza, Leaburu-Txarama, Altzo, Oresa, Lizartza, Alegia, Baliarrain, Orendain Ikaztegieta, Areso eta Leizta dagoeneko badira.

Arau berriztatzaileen aldaketa espedientea onartu dute ere eta hasiera emango diete aldaketa hauei. Lurraren eta Hirigintzako Legeak, herritarren partaidetzarako egitaraua honako hau litzateke: Batzorde irekiak, webgunea eta Udal Aldizkaria.

Jesus Inurritak aipatu zuen Naturgas Energia Distribucion SAK zorupea erabilizteagatik ezarritako prezio publikoa ordaintzeko prozedura betez, 2008ko ekitaldian Amezketa Naturgas Energiak 137.830,88 euro fakturatu zuela. Honenbestez, Udaltzatzen, denen aldeko botoekin onartu zuen %1,5 tasa ezartzea ordenantza Erregulatuaren arabera; hortaz, Na-

<p><b>1996</b> Elduain, Ikaztegieta, Altzo, Baliarrain, Gaztelu, Leaburu, Leizta, Lizartza, Orendain eta Oresa</p>		<p><b>1999</b> Anoeta eta Irura</p>
<p><b>1997</b> Aduna</p>		<p><b>2006</b> Alegia</p>
		<p><b>2008</b> Areso</p>
		<p><b>2009</b> Amezketak</p>

Amezketarekin eskualdeko 16 herri izango dira UEMAn sartuta daudenak. HITZA

turgas Energia Distribucioek iazko urteari dagokion 2.067 euroko kantitatea Amezketa Udalerriaren zuzenaren diru sarrerarengana. Beraz, likidazioa enpresa honi eskatuko zaio.

Palestinari buruzko mozioaren irakurketa egin zuten ere eta denen aldeko botoekin elkartasuna adierazi zion Udalak Palestinari.

### Arkitekto berria, Hektor Espin

Hirigintza batzordean herritako arkitekto berria zein izango den proposatu zuten: Hektor Espin. Hiru taldeak honekin elkartu ondoren arau berriztatzaileen artean, aldeketa bat ez egitea erabaki zuten: Espinen iritziz ez da arau aldaketa beharrik industrialdeko plan partziala bidez ordenazio berri bat egiteko. Eta bestalde, industrialdeko eremuan pabilioiak erreka atzera geratzea onartu zuten, du-

«baina industriko bi eremuak osotasunean aztertu behar dira», soluzio orokor bat emateko.

### Kirol batzordea osatzen

Kultura, gizarte zerbitzu eta ingurumen batzordean Kirol batzordea osatzeaz aritu ziren: talde hau osatzeko «gurasa elkarteok, hitz egin ondoren, erabakiko dute batzorde honetarako ordezkaria». Udaleko lokalen eskaera egin zuten aurreko bilkuran eta gai honetan gazteak elkarrekin bilera bat egitekotan gelditu ziren. Bestalde Udalak lokalak alokairuan ematearen iritziak, datorren batzorderako ekarriko dituzte bakoitzak.

### Guillermo Olmoren proiektua

Guillermo Olmo eskulturgilea, Pol eta Mikel Gurrutxagak aurkeztu zuten San Martingo basoaren proiektua, Aralarko hildako baso

omenaldi moduan. Urte askotan zehar minak, labeak, barku eta etxeak eraikitzen galdutako basoak. Proiektuan parte hartzen ari dira Joxe Mari Otermin, Maite Gurrutxaga, Bixente Gorostidi, eta Sara Gomez, besteak beste. Aurkezleek esan zuten «laister herriaren azalduko» dutela proiektua eta honetan herritar askok parte hartzea nahi dutela.

Tolosaldea Garatzenek oinezko bideak garbitzeko aukera jarri dio herriari sei egunetan best lagunekin. Honekin ere adostasunera iritsi ziren bileran.

Osakidetza deitu dute hementik aurrera Ugarten kontsultarik ez dela pasako esanez, «memento horretan inongo arrazoirik eman gabe». Ondorengo egun batean deitu ondoren «idatzia presatua zutela eta bidaliko dutela adierazi digute».

# Palestinaren aldeko mozioa onartu du Amezketa Udalak

## ERREDAKZIOA

Garai latz hauetan Palestinako herriari gure elkartasunik beroena adierazten diogu. 2008ko maiatzean Palestinaren hondamendia edo Nakba bezala ezaguna den estatu israeldarra sortu zela 60 urte bete ziren. Azken egun hauetan Israelgo Estatu Palestinako Gaza lurraldean egiten ari den sarraskia azken urteetako basakeriarik handiena izaten ari da.

Gazako bombardaketa hauteskunde demokratikoki irabazi zituzten Hamas erakundearen zein Gazako herritarren aurkako zigor kolektiboa izaten ari da. Israelgo gobernu bere hauteskundeak irabazi nahian gerra sortzen ari da eta hori aurrekari arriskutsua izango daiteke.

Munduko estaturik armatuenetariko den Israel Palestinako herri zapalduaren aurka burutzen ari

den giza krimen honen aurrean, Ameriketako Estatu Batuak, Europar Batasuna edo Nazio Batuak bezalako erakundeek beste aldera begiratu izana lotsagarria eta salatzailea da. Instituzio hauen ordezkari diren Estatu imperialistak estatu terrorismoaren konplize zuzenak dira, euren interes geoestrategikoen arabera mundua gerrarako bihurtzen ari dira, Afganistan, Irak, Libano eta orain berriro ere Palestina. Zein izango da hurrengoa?

60 urte hauetan Israelgo estatuak denetarik egin du Palestinako herriaren askatasun egarria isiltzeko: lurraldea zatikatu, lurrak, ura eta bestelako ondasunak lapurtu, lotsaren harrisia inposatu... Milaka hildako, beste milaka erbesteratu eta 10.000 preso politikoko bano gehiago eragin dira baina ala ere Palestinar herria bizirik jarrai-

tzen du. Munduko gatazka guztietan bezala Palestina eta Israelen arteko gatazkaren konponbidea ere elkarrizketa eta negoziazioaren bidez etorriko da, Palestinarrek mila bider aldarrikatu izan duten moduan.

Guizti hori gertatzen ari den bitartean, Israeldar estatuari aurre egiteko tresna moduan, Palestina 600 elkarte zibilek Israeli boikotatu dute. Boikot hori gure herritik egitea ere tresna baliagarria izan daiteke.

Hau guztiagatik, Amezketa Udalak, denen aldeko botoekin honako hau adierazten du:

Udal honek bere elkartasunik beroena adierazten dio Palestinako herriari.

Palestinako 200 elkarte zibilek baino gehiago bultzatutako Israeli boikot kampania babesten dugu.

Israelgo estatuak ekoiztatuko

zein babestutako kontsumo, kultura, entretenimendu edo bestelako produktuak baztertu ditugu.

Israelgo estatuaren izenean gure lurraldera etortzen diren talde, erakunde, enpresa, kirol talde edo kultura elkarten presentzia non grata izango da gure herrian.

Israelgo Estatuarekin gure herriari izan ditzakeen harreman instituzionalak hautsiko ditugu.

Udal honek Israelgo gobernuari gutuna bidaliko dio Gazako eraso arbuaiatz.

Gazte-Taldeak antolatzen duen ekitaldiarekin bat eginez, herritarrei honen berri emanez deialdia banatzeko konprometua hartzen du Udalak.

## Iragarki laburrak

### GALDUTAKOAK

■ **Txakurra.** Villabonan joan den igandean txakur beltz txiki bat azaldu zen. Txakur hau galduta duenak dei dezala Udaltzaingora: 943 69 39 80.

# Dantzarako oinak prestatzen

**Anoeta** » Ehundik gora lagunek parte hartuko dute berriro dantza-sokan; hilaren 14an, egun osoan zehar egingo dute ekitaldia.

**IMANOL GARCIA**

Ehun herritar inguruk eman dute izena otsailaren 14an, Inauterien aurreko larunbatean, Anoetako dantza-sokan parte hartzeko. Oraindik aukera badago izena emateko, otsailaren 7a baita azken eguna horretarako. Baina dantzari eta trikitilari ez gain, badaude beste hainbat lagun parte hartzen dutenak, bai bazkaria egiten, bai taloak prestatzen, bai erromerian... Urtero errotuz doan festa da dantza-soka eta aurten ere parte-hartze handia izango du.

Ekitaldiaren egunean bi talde-tan banatuko dira eta bakoitzak bere zonaldea hartuko du. 08:30ak inguruan plazan elkartu eta gero, abiatzen dira baserrietara, traktoeretan igota. Bertan axeri dantza, arin-arina eta fandangoa dantzatzeko dituzte.

Antolatzaileek azaltzen dutenez, harrera «oso ona» egiten diete baserrietan eta jatekoa eta edatekoa ere ematen diete. Aurten, beritasun bezala, eta baserriarrak «protagonistak ere badirela» ekitaldi honetan», antolatzaileek pentsatu dute dantzariak baserri-tarrek bakoitzean argazkia ateratzea, gero beraien bidaltzeko.

## Plazaren txanda

Baserriak pasatu eta gero, 11:30ean elkartuko dira bi taldeak herrian eta kalejiran joango dira plazara. 12:00etan mutilen txanda izango da eta aureskulari eta atzeskularietako protagonismo pixka bat hartuko dute. Gero Kuku elkartera joango dira bazkaltzera eta horren ondoren, 17:00etan, nesken txanda izango da plazan. Plazakoa bukatu eta gero frontoian erromeria izango da eta baita taloak dastatzeko aukera ere.

Antolatzaileek nabarmentzen dute egun horretan sortzen den herri giroa: «Ehundik gora lagunek parte hartzen dute zuzenean



Edurkan dantza-sokarako egindako entsegetako bat. I. GARCIA

ekitaldian. Gero plazan egiten diren dantzak ikusten egoten direnak eta erromerian parte hartzen dutenak ere. Oso giro ona izaten da egun osoan zehar». Antolatzaileek gustura daude ekitaldiak urtero hartzen duen indarrarekin. «Urtero gazte jende gehiago sartzen da eta helduak mantendu egiten dira», diote.

Prestaketak badoaz aurrera eta egin dituzte zenbait entsegu. Orain bi entsegu orokorrak falta dira, datorren ostiralean, hilak 6an, eta ekitaldiaren aurreko egunean, ostirala ere, hilaren 13an. «Garrantzitsua da izena eman dutena azaltzea bi entsegu horietara», azaldu dute antolatzaileek. Entseguak 18:30ean hasiko dira Edurkan.

## Aureskulari eta atzeskulariak

Aurten aterako diren atzeskulariak eta aureskulariak berriak izango dira. Mutiletan Aitor Munduate izango da aureskularia eta Iker Etxeberria atzeskularia. Nesketan Lide Zubeldia izango da aureskularia eta Leire Zumeta atzeskularia. Amaiur Luluaga aritzen da dantzak irakasten.

Iker Etxeberria 13 urte ditu eta aurten bigarren aldiz aterako da dantza-sokan. Bigarren aldi hone-tan, gainera, atzeskulari bezala

izango da. «Inor ez zen animatzen eta azkenean berotu eta animatu egin nintzen», azaltzen du Etxeberria. Bera da gazteena aureskulari eta atzeskularien artean. Prestaketak «ondo» dihoazela dio Etxeberria. Ez da aurretik dantza egiten aritu, beraz iazko dantza-sokan ikasitakoa du oinarri eta aurtengorako ikasten ari dena. Berriantzeko bereziki diren dantzak ikasten ere «ondo» dabilela dio eta plazan nola moldatzen diren ikusi beharko dela. Iazkoan «gustura» parte hartu zuela dio Etxeberria. «Lagunekin atera ginen. Hotza egin zuen, baina giro aldetik ondo egon zen», zehazten du.

Aitor Munduatek 22 urte ditu eta azken garaian egin diren dantza-soka ia guztietan parte hartu du. «Aureskulari bezala parte hartzeko proposatu zidaten eta aurten dantzako ikastaroan izena eman dudanez, baiezkoa eman nuen», azaltzen du. Munduatek herritarrek animatzen ditu plazan egingo dituzten dantzak ikustera joan daitezke. «Bai egunekoan, bai bazkarian oso giro ona izaten da», dio beste urteetako dantza-sokak gogoratuz. «Arazoa izaten da bazkariaren aurretik eta ondoren zeinek egin behar izaten duen dantza plazan. Bazkaldu aurretik egitea

nahiago izaten dugu, gero lasaia bazkaltzeko», esaten du aureskulariak.

Lide Zubeldiak 16 urte ditu eta dantzaren mundua ondo ezagutzen du. Ibarrako Alurr taldean parte hartzen baitu. Zubeldiari ere proposatu egin zioten antolatzaileek eta baiezkoa eman zuen, «gustura» egingo zuela. Ez du, beraz, urduritasun handirik izango plazan. Dantza-sokan ere ez du lehenengo aldiz parte hartuko. «Kriston giroa izaten da, herrikoak denak batera joaten gara eta oso gustura ibiltzen gara», dio. Baserri-tarrei dantzariak joatea ilusioa egiten diela dio Zubeldiak, «aspaldiko garaietan bezala».

Leire Zumetak 22 urte ditu eta orain arte trikitilari moduan parte hartu du dantza-sokan. «Aurten proposatu zidaten eta zerbait ezberdina zenez, baiezkoa eman nuen», azaltzen du. Orain arte beste ikuspuntu batetik ikusi du ekitaldia, beraz. Ez da dantzan aritu aurretik, baina justu aurten dantza ikastaroan eman du izena koadrilako beste batzuekin. Musikari bezala parte hartu ondoren, egin beharreko dantzak eritmo aldetik oso ondo ezagutzen ditu eta «horrek laguntzen du» dantzak prestatzerakoan.

## Udalak 2009ko aurrekontuen zirriborroa aurkeztuko du etzi Gurean

**Villabona** » Aurkezpen ekitaldia etzi izango da; Udalak herritarren ekarpenak jaso nahi dituela azaldu du.

## ERREDAKZIOA

Villabonako Udalak prest du 2009 urterako aurrekontu egitasmoaren zirriborroa. Udaletik bertatik azaldu dutenez, «ezeren aurretik herritar guztiei aurkeztu nahi genieke hauen ekarpen, iradokizun edo dena delakoak jasotzeko». Horrela, etzi, hilaren 5ean, udal aurrekontuen aurkezpen ekitaldia egingo dute Gurea aretoan, 19:30ean.

Krisi urtea dela eta aurrekontuen murrizketa hitzetik hortzera dabilela dio Udalak. «Guk, aurrekontuak osatzeko garaian, egoera sozioekonomiko orokorrari ere erreparatu diogu eta egoera horri ahalik eta gehien egokitzen diren aurrekontuak osatzen saiatu gara», azaldu dute.

## Laburrak

### Alkartasunak urteko batzarra egingo du etzi

**ANOETA** » Alkartasuna Biltokiak urteko batzarra egingo du, etzi, hilak 5, 18:00etan. Bertan ondorengo gaiak jorratuko dituzte: egoera ekonomikoa, lehendakariaren kargu-uztea, lehendakariaren aukeraketa eta galdera eta erreguak. Batzarraren ondoren pintxoak banatuko dituzte. Alkartasunaren zuzendaritzatik ahal duten bazkide guztiei joateko deia egin diete.

### Kaldereroen entsegu orokorra hilaren 6an

**ANOETA** » Kaldereroak hilaren 13an izango dira. 18:00etan Anoetako plazan elkartuko dira. Horren aurretik entsegu orokorra egingo dute hilaren 6an, ostirala, 18:00etan Anoetako Ikastolan.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri** eta  
**Gipuzkoako beste 4 Hitzetan**  
**DOAN** agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

# Asteburuko pilota mozkorraldian Aristorenak eta Agirrek bitik bi

**Leitza** » Oinatz Bengoetxeak eta Ruben Belokik behar-beharrezko garaipena lortu zuten Xala-Zubietaren aurka.

## ASIER IMAZ

Leitzako pilotariak asteberuan partida ugari jokatu zituzten. Alde batetik Abel Barriola eta Oinatz Bengoetxeak Binakako Txapelketaren bosgarren jardunaldia jokatu zuten. Bestalde, Iera Agirrek eta Saioa Aristorenak Paleta Goman bi partida jokatu zituzten. Azkenik, Nafar Jokoetan, hamaika pilotari gaztek hamaika partida eduki zituzten.

## Barriola eta Bengoetxea VI.a

Eskuz Binakako Txapelketaren bosgarren jardunaldia jokatu zen asteburuan. Leitzara garaipen bat eta porrot bat ekarri zituzten Oi-

natz Bengoetxeak eta Abel Barriolak.

Larunbatean bi pilotarietan zaharrenak jokatu zuen bere partida. Abel Barriolarekin Sebastian Gonzalezek osatu zuen bikotea azkenean. Aste guztian zehar azkain-darra zalantza izan zen, lesio bat medio, baina azkenean Idiazabalen jokatzeara erabaki zuen ordezkatzeko prest zegoen Olazabalen kalterako.

Leitzarrak eta Gonzalezek aurrean Berasaluze eta Begino zituzten. Hauek lortu zuten azken tontoa, partida 22-21 irabaziz.

Oinatz Bengoetxeak herenegun jokatu zuen Eibarko Astelenapilotalekuan Ruben Belokirekin batera. Bikoteak garaipena «derrigorrezkoa» zuen, hurrengo fasera sailkatzeko aukerak mantentzeko. Aurrean Xala-Zubieta agertu ziren baina Xalaren kasuan, kantsan ez zen lapurtarraren doharik ikusi. Leitzarrak eta burlatarrak 22-15



Aurten oraindik txapelik ez, baina bikote sendoa osatzen dute leitzarrek. HITZA



Bengoetxea VI-Belokik bizirik jarraitzen dute Binakako Txapelketan. A. IMAZ

irabazi zuten norgehiagoka. Gauzak horrela, sailkapen nagusian Barriola-Gonzalez laugarren postuan aurkitzen dira, hiru garaipen eta bi porrotekin. Oinatz Bengoetxea-Ruben Beloki azken hirugarren daude, bigaraipen eta hiruporrotekin.

## Nafar Jokoak eta Paleta Goma

Iera Agirrek eta Saioa Aristorenak bi partida jokatu zituzten asteburuan Paleta Goman, Euska Herriko Ligari zegokiona eta Emakume Pilotari Irekiko partida. Bi jokatu eta bi garaipen lortu: 30-6 eta 30-8.

Nafar Jokoetan, Aurrerako pilotari gazteak lehia ugari jokatu zituzten asteburuan, hona hemen emaitzak:

Amazabalen, Barriola-Zubiriak 13-18 galdu zuten; Mikel Sagastibeltza-Ander Garziarenak 5-18; Igartua-Gilek 5-18 eta Apezetxea-Hernandorenak 9-22. Anartz Olano-Ibai Barberenak 18-6 irabazi zuten, Xabi Eraso eta Mikel Onsalok berriz 22-14.

Leitzatik kanpo jokatu ziren partidetan, Aurrerako pilotariak porrotak eta garaipenak lortu zituzten: Mitxaus-Saralegik 17-18 galdu zuten euren partida; Gil-Erasok 6-18 eta Lezea-Eskuderok 3-18.

Garaipenei dagokienez, Sukuntza-Billabonak 18-15 irabazi zuten eta Alduntzin Eskuderok 18-8.

# Indartzen ari diren Inauteriekin gustura agertu dira antolatzaileak

**Areso** » Inauteriak herenegun amaitu ziren eta antolatzaileek lehen balantze orokorra egin zuten atzokoan.

## A. IMAZ

Aresoko Inauteriak herenegun amaitu ziren. Hiru egunetan hainbat herritar mozorroturik jaitsi da kalera jaiarekin bat egiteko asmoz, horretaz gain, etxeetako balkoiak ere Inauteri kutsuz apaindu dituzte herritarrek.

Jaiaren amaieran, Festa Batzordeko kideek balantzea egin dute eta «gustura» agertu dira.

## «Eskerrak parte-hartzaileei»

Festa Batzordearen barnean, Guraso Elkarte eta Herriko Gazteak aritu dira Aresoko Inauteriak antolatzen. Hauek parte-hartzaile guztiei eskerrak eman nahi izan dizkiete.

Balantzea egiterako unean, orokorrean oso ongi joan dela aipatu dute: «Partaidetza ona izandu da. Inoiz baino jende gehiago irten da mozorroturik eta etxeetako balkoiak inoiz baino jende gehiagok apaindu ditu».



Inauterietan herritar asko mozorrotu dela aipatu dute antolatzaileak. A. IMAZ

Egitarauari begiratu gero, larunbata azpimarratu dute: «Normalean larunbata izaten da egun indartsuena eta aurten ere horrela izan da. Pake Toki elkartearen jende asko bildu zen afarian. Bertan egin zuten dantzaldian ere jendeak ongi hartu zuen parte. Igandeari dago-kionez berriz, orain artean ahule-

na bera izaten zen, horregatik aurtentzerkia jarri genuen eta honek asko indartu du».

Ostiralean eskolako haurrek eskaini zuten ikuskizuna eta ondorengo egunetan hauen erantzunak, gustura utzi ditu antolatzaileak, helburuen artean haurren parte-hartzea baitzuten.

## Laburrak

### Olanotar bat behera eta bestea Bigarren Mailan

**LEITZA** • Aizkoran, Nafarroako Bigarr Maila ez galtzeko norgehiagokan, bi leitzar lehiatu ziren Ituren asteburuan. Arkaitz eta Xanti Olanorekin batera, Jon Telletxea eta Esteban Pikabea aurkeztu ziren lehiara. Bi kanaerdiko eta 60 ontzako enbor bat mozten azkarrera Arkaitz Olano izan zen, 8:57ko denborarekin. Bigarren Jon Telletxea izan zen eta hirugarren Esteban Pikabea. Bigarren leitzarra, Xanti Olano, azkena izan zen eta ondorioz Pikabearekin batera Hirugarren Mailara jeitsiko da.

### Kantu-jira otsailaren 13an 19:30ean Aurrera

**LEITZA** • Herriko kantuzale talde batek bultzatuta, Kantu-jira izeneko ekimena abian jarri zen iragan urtearen amaieran. Beste zenbait herritar arrakasta handiz egiten ari den ekimenak ere ohiartu zuten Leitzan. Euskal kanteak osatzen dute egitaraua, eta kantatzeko zaletasuna duen edonork parte har dezake. Musikariren batek lagunduta aritzen dira eta hileko lehen ostiralean elkarrekin dirira Aurrera elkartearen 19:30ean. Ekimena irekia denez, nahi duten guztiak joran daitezke hitzordura.

### Bartoloak antolatzeko bilera etzi 19:30ean

**IBARRA** • Bartolaren Batzordeak batzarra egingo du Benito Izagirre kultur etxean etzi, otsailaren 5ean, 19:30ean. Bertan, herriaren egingo diren festak edo bartoloak antolatzeko Festa Batzordea osatu nahi dutela azaldu dute Bartolaren Batzordeko kideek. Horretarako, herritar guztiei dei egin diete, etzi Kultur Etxean egingo duten batzarra ager daitezten eskatuz. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, bilek irauten duen denboran ludoteka zerbitzua ere eskainiko dute Batzordeko kideek.

### Galarretan gaur eta etzi bi eskualdeetakoak

**ERREMONTEA** • Eskualdeetako pilotariak partidak jokatu dituzte gaur eta etzi Hernaniko Galarreta pilotalekuan. Gaur Altuna II.ak jokatu du 16:30ean hasiko den jaialdian. Amezketarrak Badiolarekin osatuko du bikotea eta Juaristi-Urrutiaren aurka jokatu dute. Etzi, Gazteluk eta Zeberio II.ak jokatu dute. Jaialdia 16:00etan hasiko da. Lehen partidaren, leitzarrak Etxabe II.arenkin jokatu du Matxin IV-Baleztenaren aurka eta bigarren partidaren, elduaindarrak Etxaberekin, Ezkurra-Agirrezabalaren aurka.



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leizaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Jaiak

■ **Tolosa.** San Blas Eguna San Blas auzoan: 11:00etan Meza Nagusia bertako produktuen bedeinkapena eginez; 12:30ean toka lehiaketa auzokoen artean eta elkarrekin; 18:00etik 21:30era Elustondo anai-arrebak trikitilari taldea.

### Deialdiak

■ **Ibarra.** 20:00etan San Bartolome plazan Santa Ageda entseguak.

### Hitzaldia

■ **Ibarra.** Montse Meana eta Lourdes Garijo Gasteizko haur eskolako hezitzaileek *0-3 hauren heziketa estilo berri bat* hitzaldia eskainiko dute Benito Izagirre kultur etxean 18:00etan.

### Kultur Asteak

■ **Ibarra.** Igandean mendi irteera Zeraingo meategitara Uzturpe ikastolaren Kultur Astearen.

### Kirola

■ **Asteasu.** Otsailaren 7 eta 8rako eski irteera antolatuta du Sagain mendi taldeak Luz Ardiden-era. Informazioa, [www.sagain.org](http://www.sagain.org).  
■ **Tolosa.** Alpino Uzturre elkarteak 8rako irteera bat antolatuta du Balmasedatik San Juan de Berbikezera, Trasmosomos (698 m.) eta Ilo (564 m.) mendiak igoz. Iraupena bost ordu t'erdikoa da. Izen-emateak elkartean, 943 65 27 89 edo [alpinouzturre@hotmail.com](mailto:alpinouzturre@hotmail.com).

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 670128.  
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.  
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



## Karrozen eta konpartsen izen-ematea

**TOLOSA** • 2009ko Inauteriak heltzeko egun batzuk baino ez dira geratzen. Tolosako koadrila eta talde gehienek dagoeneko hasi dituzte euren pres-

taketa lanak guztia ondo ateratzeko. Bada, Tolosako Udako Kultur sailak jakitera eman duenez, karrozekin edo konpartsekin diru laguntza jaso nahi dutenek, izena eman dezakete Tolosako Kultur Etxean. Orduetgia ere zehaztu dute, goizez, 10:00etatik 13:00etara eta arratsaldez, 17:00etatik 19:00etara. I.TERRADILLOS

## A Agurrak



**Urte askoan!**  
**Tere Albizu Arruti (Tolosa).**  
Zorionak eta muxu bat familiaren partetik.



**Urte askoan!**  
**Ander Mujika (Abaltzisketa).**  
Gaur 4 urte, zorionak eta muxu pila bat denon partetik.

**OKINDEGI / KAFETEGIEN SEKTOREAN LIDERRA DEN ENPRESAK**  
**NEGOZIO BERRITZAILA ETA KONTRASTATUAREKIN,**  
**ERRENTAGARRITASUN HANDIAREKIN**  
**LEITZAN LAISTER EGINGO DUEN IREKIERARAKO HARREMANETAN JARRI NAHI DU:**  
• BEREZAKO NEGOZIOA  
• KUDEATU NAHI DUTEN PERTSONEKIN  
• DENDAKO ARDURADUNEKIN  
• SALTZAILEEKIN

Interesatuak harremanetarako gutuna eta CVa bidali ondoko helbidera: posta kutxa 54 - 20115. Astigarraga

## LIBURUA SALGAI

**Salmenta:**  
Liburuaren prezioa: 18 €  
Galtzaundi eta Tolosaldeko eta Leizaldeko Hitzako bazkideak: 14 €  
**Eskaintza bereziak:**

5 liburu 80€	10 liburu 140€
-----------------	-------------------

**Salmenta puntuak:**  
• Galtzaundi eta Tolosaldeko eta Leizaldeko Hitzako bulegoetan,  
• Tolosako Aranburu, Babel eta Elkar liburutegietan,  
• Ibarako Lurdes liburutegian,  
• Villabonako Basajaun liburutegian.



1936KO GERRAKO  
OROITZAPENAK  
TOLOSALDEAN ETA LEITZALDEAN

ARANZADI

galtzaundi

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO **hitza**